

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Añeriko lorategia errekupeatzeko lanak amaituko dira aurten, Bertizko Natur Parkean

2014an bisitariak erabiltzeko eta gozatzeko prest egotea espero da, atzo Parkeko patronatuak jakinarazi zuenez

Jueves, 01 de agosto de 2013

Aurreikusita dago aurten amaituko direla Añeriko Lorategian egiten ari diren lanak, hura errekupeatu eta Bertizko Natur Parkeko bisitariak erabili eta goza ahal dezaten datorren urtetik aurrera. Horretarako, 2013an gaizki osatutako edota gaixo dauden zuhaitzak mozten jarraituko da, bideak mugatzen, lurreko eskaierak konpontzen, eta heskaiak inauten. Lan horiek guztiak 2012ko hasieran egiten hasi ziren.



Hondoan, Esparza kontseilaria Bertizko Natur Parkeko Patronatuak egindako bileran.

Hala jakinarazi zaie Parkeko Patronatuko kideei, eta atzo bildu zirenak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparza buru zela.

Bileran azpiegitura, erabilera publiko eta kontsebazio arloetan 2011n eta 2012an egindako jarduketak nagusiak errepasatu ziren, eta 2013 rako aurreikusitakoak aurkeztu; urte honetan Nafarroako Gobernuak 363.700 euro inbertitzea aurreikusten du.

2013an aurreikusitako jarduketak

Parkeko erabilera publikoari dagokionez, berrikuntza gisa, ingurumen-boluntariotzaren kontzeptua sartu nahi da eta, horretarako, izan daitezkeen jarduketaren proposamen bat eta boluntarioen prestakuntza landuko da. Bestalde, Bertizko Natur Parkeak gidatutako ibilbide-zerbitzuen eskaintza handituko du Lorategi Botanikoaren eta Baso Mintegiaren arteko ibilbide berria abian jarri.

Gainera, aurreko urteetan bezala, ekitaldi honetan jendearentzako arreta ematen segitzen da hainbat ekipamendutan (Dokumentazio Zentroa, Harrera Etxola, CIN, Lorategi Historiko-Artistikoa, Kotxe-tokia...), jendearentzat orokorrean bisita gidatuen zerbitzua eskainiz. Halaber, udazkeneko eta udaberriko eskola-kanpainen bisitei erantzuten jarraituko da, eta haien artean eskura dagoen materiala berri eta eguneratu da.

Era berean, zaintzen, azpiegituren mantentze-lanen eta garbiketako

zerbitzuarekin jarraituko da. Gogoratu behar da 2011n Parkeak 71.250 bisitari hartu zituela, eta 2012an, 70.168. 2013ari dagokionez, urtarrila-ekaina aldian 30.240 bisitari izan zen.

ZECen Kudeaketa Planari dagozkion jarduketetan, Exotiko eta Inbaditzaileen Kontrola Planari buruzkoak azpimarratu behar dira. Bertan finkatzen denez, basoen tratamenduak egingo dira basoko masak kontserbatzeko eta hobetzeko, espezie aloktonen masetan soilik jardunez eta errekuiperatzeko helburuarekin. Jardungo den espezieak honako hauek dira: *Populus sp.*, *Chamaecyparis lawsoniana*, *Picea abies*, *Quercus rubra*, *Prunus laurocerasus*.

Bestalde, Lorategi Historiko-Artistikoari buruzko argitalpen bat eta Bertizko Baso Herbario bat egingo da, jendearen eskura jartzeko Harrera Etxolan eta CINen eta anfibio nahiz narrastien azterketa bat egingo da, SARE Estatuko programaren barnean. Horrekin anfibio eta narrastien populazioen epe luzerako jarraipena egin nahi da populazioen bilakaera erabakitzen utziko duten sail luzeak lortze aldera. Aldi berean, adierazle fidagarrienak zein diren zehazten utziko du, komunitateetan izan daitezkeen beherakadak edo aldaketak hauteman ahal izateko.

2013rako jarduketan aurreikuspena honako era honetan osatzen da: pisten eta aparkalekuaren mantentze-lanean hainbat behar eginez, zubiak prestatuz bideetan bisitarien joan-etorrirako, inguruko itxiturako mantentze-lanak eginez, iturriak eta urmaelak garbituz eta lorategi botanikoan eta baso-mintegian hainbat lan eginez.

Bertizko Natur Parkeko Patronatuaren kideak

Bertizko Natur Parkeko Patronatua honako erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute:

Oieregi eta Narbarteko (Bertizarana) kontzejuek; Bertizarana, Etxalar eta Baztan ibarreko udalek; Bidasoa-Berroaran Administrazio Batzarrak; Bertizko Partzuergoak; Gurelur-ek; Cederna-Garalur-ek eta Nafarroako Gobernuak (Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko kontseilaria); eta Turismo, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako zuzendari nagusiek; eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari-gerenteak.